




Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?



03.Jul - 04.Jul 2017

Cod. H4-17

Mod.:
Face-to-face

Edition
2017

Activity type
Workshop

Date
03.Jul - 04.Jul 2017

Location
Miramar Palace

Languages
Basque

Organising Committee



Description

Ahozko komunikazioa edozein adinetan irakatsia izateko uneak eta aukerak hamaika dira eskolan, ikasgelan. Hizkuntza ikasgai ez ezik, edozein arlotan agertzen da modu batean edo bestean ahozko komunikazioa. Eskolan hainbatetan ematen dituzte ikasleek gai baten inguruko azalpenak, ariketaren ebazpena eman dezaten eskatzen diegu, iritzia eman eta partekatzeke, sortzen ditugu egoerak asteburuko gertakizunak kontatzeko... Egoera horiek eraikitzea bezain garrantzitsua da egoera horietan ikasleek ahoz komunikatzeko dituzten gaitasun eta beharrak identifikatzea. Zenbateraino ezagutzen dituzte aurkezpen baten ezaugarriak, badute nahikoa hizkuntza-baliabide iritziak emateko, jendaurrekotasuna kudeatzeko baldintza egokietan jartzen ditugu?... Tailer honetan aztertuko dugu ahozko komunikazioa irakas-gai bihurtzeko zein aukera ditugun eskolan. Aurkeztuko dugu zein diren eskolan ahozkoa lantzeko uneak. Une bakoitzeko aukera metodologikoak ere bai. Sakonduko dugu adibide praktikoetan: ahozkoa lantzeko proposamen didaktikoak eta ikasleen ahozko ekoizpenak plazaratu eta taldean aztertuko dira, baita irakasleen praktika onak ere.

Program

03-07-2017

- 08:30 - 11:00 "Gure testuinguru soziolinguistikoa eta ahozko hizkuntzaren lanketaren arteko lotura. Diagnostikoa egin eta ikastetxean erabakiak hartzeko oinarritzko adierazleak."
- Josune Zabala Alberdi** Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
-
- 11:30 - 13:30 "Egitetik lantzeraz: pizgarri batzuk egiten dugunaz jabetzeko. Azken hitzak goizeko tailerraz."
- Olatz Bengoetxea Manterola** Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Josune Zabala Alberdi Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
-
- 15:00 - 16:30 "Ahozko hizkuntza lantzeko uneak. Egoera autonomoak: ahozkoaren aldagai jakin bat lantzeraz bideratutako jardueraz eta jolasak."
- Olatz Bengoetxea Manterola** Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Josune Zabala Alberdi Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
-

04-07-2017

- 09:00 - 11:00 "Egoera gidatuak: ahozko genero berezituak, errutinak eta sekuentzia didaktikoak."
- Josune Zabala Alberdi** Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
-
- 11:15 - 13:00 "Egoera askeak: edozein elkarrekintzatan sortutako egoerak kudeatzeko praktika onak."
- Josune Zabala Alberdi** Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
-
- 13:00 - 13:30 Tailerrari amaiera.
-

Directed by



Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2002), Hizkuntzen aditu titulua eskuratua (Mondragon Unibertsitatea, 2005) eta Euskal ikasketetan doktorego programa eta ikerketa gaitasuna burutua (EHU, 2008). Lan ibilbidean, euskara eta bere irakaskuntzaren alorra landu du, batez ere: helduen euskalduntzean euskara irakasle eta trebatzaile (AEK eta udal euskaltegiak, 1999-2004); Euskara Biziberritzeko planetan aholkulari (Azpeitiko euskara patronatua, 2004-2005), eta Mondragon Unibertsitatean irakasle (HUHEZI fakultatea, 2004-2008 eta 2012-2014). Ikerketari dagokionez, HIJE taldeko (Hizkuntzaren jabekuntza eta erabilera) eta Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko partaide ere bada, eta Soziolinguistika Klusterrean ahozkotasanari buruzko ikerketa eta formazio ezberdinak gauzatu ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendari lanetan dihardu egun Eusko Jaurlaritzan.

Teachers



Olatz Bengoetxea Manterola

Soziolinguistika Klusterra, Teknikaria

Hizkuntza teknikaria eta ikertzailea Soziolinguistika Klusterrean. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2012) eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra burutua (2019). Lan ibilbidean, euskara irakasle eta euskaraz mintzatzeko hainbat programetan parte hartu du. Horrez gain, hezkuntza ez konbentzionalean eta aisialdian hezitzaile eta dinamizatzaile lanetan aritu da haur eta gazteekin. Gaur egun, proiektu arduraduna da Soziolinguistika Klusterrean ahozko hizkuntzari buruzko hainbat egitasmo eta trebakuntza ikastaroetan. 2014az geroztik egiten du lan bertan. Eskolan euskararen ahozkotasanarekin lotutako hainbat ikerketatan dihardu.

Registration fees

REGISTRATION	UNTIL 31-05-2017	UNTIL 03-07-2017
GENERAL	60,00 EUR	70,00 EUR
REDUCED FEE	35,00 EUR	-
REGISTRATION EXEMPTIONS	20,00 EUR	20,00 EUR
AEK	50,00 EUR	-
SPECIAL FEES	-	35,00 EUR

Place

Miramar Palace

Pº de Miraconcha nº 48. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa